ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2022ko maiatzaren 18a, asteazkena • 57 zk.

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

# ASPARRENEKO UDALA

**310/2021-V administrazioarekiko auzi errekurtsora epatzea**

Bat etorriz Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluan xedatutakoarekin, 310/2021-V administrazioarekiko auzi errekurtsoan espedientea aurkeztu eta Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako 1 zenbakiko Epaitegira bidali dela jakinarazten da. Errekurtso hori Jesús María Martín Fanegak aurkeztu zuen Asparreneko Udalaren 2021eko maiatzaren 31ko ebazpenaren aurka. Ebazpen horren bidez, ezetsi egin zen hautaketa prozesuko epaimahaiaren 2021eko martxoaren 24ko erabakiaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsoa. Erabaki horrek ezetsi egin zuen COVID-19 konfinamendu egoeragatik proba praktikoen ariketak egiteko epea atzeratzeko eskaera.

Iragarki honen bidez epatu egiten da prozeduran interesa izan dezakeen oro, autoetan agertu eta pertsonatu dadin, bederatzi eguneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Araia, 2022ko maiatzaren 10a

*Alkatea*
*CONSUELO AUZMENDI JIMÉNEZ*


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432


Firmante: CN=ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARITZA - DIRECCION SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 211865
Fecha de firma: 2022.05.18 04:26:21 Z